

**ZAARTZEN ETE?**

Muiño altzoan dardar  
dago krabeliña...  
Erio ete dabil,  
irrikoi ta miña?

Aldia! Onen leia!  
Eta aldiz aurretik  
dator Negu zirtzilla,  
osto oriz jantzirik.

Otz da... Ordua? Joten.  
Nok esan zer danentz?  
Arin yoaku dana.  
Erio, ertzez ertz.

Latsa, ur aunditu doa  
neure leiopean;  
ezker-eskuma lorak  
ikus lokatzean.

Or atarian zarra,  
larogei urtez zutik;  
illobakaz nastean,  
ez dau gura ilterik.

Berrogei egiñak nik,  
ta tantai nazala uste...  
Ordua barriz joka;  
zaartuz ni oarke.

**UTS-LAINOA**

Arro, zut abil, igelño.  
Baiña zer az, esan? Loi ben?  
Ori ozta. Ez al deritxak?  
Uts-laiño dok ire izamen.

Enara ezkutu, zear,  
ego-urdin, or, amesti;  
kasketa dok gogai aizez  
betea, gora-min beti.

Lillurazko etxeari  
eder jarriaz jasoña,  
—zuri, orlegi ta gorri—  
ñarñartua dok soiña.

Argi prinrzelan josia  
daukak amesez gogoa;  
kiskal bearrez biotza,  
zeru-lurrez bieí kaskoa.

\* \* \*

Aintz betean zear, gazte,  
utsaren utsa estaliz,  
udalen osto pareko  
una dabilkik intziriz.

\* \* \*

Arro, zut abil, igelño.  
Baiña zer az, esan? Loi ben?  
Ori ozta. Ez al deritxak?  
Uts-laiño dok ire izamen.